

XEDAPEN OROKORRAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5215

AGINDUA, 2015eko abenduaren 2koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiei buruzkoa.

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xedea da pertsona fisikoen askatasun publikoak eta eskubideak bermatzea eta babestea, horrelako datuen tratamenduari begira. Lege hori aplikatzekoa da euskarri fisikoan erregistratuta dauden eta tratatu daitezkeen izaera pertsonaleko datuen kasuan, bai eta gerora sektore publikoaren nahiz pribatuaren aldetik egin daitezkeen datu horien erabilera mota guztietan ere.

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 4. artikuluan (lege horrek izaera pertsonaleko datuen titulartasun publikoko fitxategiak eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren sorrera arautzen ditu) xedatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren fitxategiak sortzeko, aldatzeko edo ezabatzeko beharrezkoa dela fitxategia atxikita dagoen saileko titularraren agindua, aginduak indarrean dagoen legerian ezarritako aipamen guztiak jaso behar dituela, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu behar dela; hori guztia, 15/1999 Lege Organikoaren 20.1 artikuluan eta lege hori garatzekoa den abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 54. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Urriaren 18ko 308/2005 Dekretuaren 2. artikuluan (dekretu hori otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzekoa da) ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinaraziko diotela izaera pertsonaleko datuen zer fitxategi sortu, aldatu edo ezabatu diren, Datuak Babesteko Erregistroan inskribatzeko.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautu ziren.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioaren egitura arautzen du, 2. artikuluan; eta 8. artikuluan, ordea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren funtzioak eta jardun-arloak xedatzen ditu.

Abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, organo hauek osatzen dute aipatutako Sail hori: jada desagertutako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko organo eta unitate guztiek; eta jada desagertua den Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko organo eta unitate guztiek, Lurzoru eta Hirigintzako Zuzendaritzak izan ezik, azken hori egungo Garraio eta Herri Lanetako Sailburuordetzari atxikita geratu baita.

Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailen egitura berrantolatzearen eta eskumenen esleipena aldatzearen ondorioz, beharrezkoa da Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila osatzen duten organo eta unitateei atxikitako fitxategi guztiak bateratzea, haiei buruzko araudia jada desagertu diren jatorrizko sailek emandako aginduetan barreiatuta baitago.

Halaber, araudi honen xedea da aipatutako Sailari atxikita geratuko diren fitxategi berriak sortzea, bai eta orain arte zeuden beste batzuk aldatzea edo ezabatzea ere.

Bestalde, agindu horrek barnean hartzen ditu Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiak ere; erakunde hori Enplegu eta Gizarte Politiken Sailari atxikita dago.

Horregatik guztiagatik, lehen aipatutako Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea, eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betetzeko, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoak kudeatzen dituzten izaera pertsonaleko datuen fitxategiak arautzea; agindu honen IV. eranskinean zerrendatu dira fitxategi horiek.

2.– Aurreko zerrendatik, I. eranskinean zehaztutako izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortu dira.

3.– Aldatu diren fitxategiak II. eranskinean zerrendatu dira.

4.– Ezabatu diren fitxategiak III. eranskinean zerrendatu dira, eta fitxategi horietan jasotako datuak nora bideratuko diren zehaztu da.

2. artikulua.– Datu-lagapena.

1.– Fitxategi bakoitzerako aurreikusitako datu-lagapenak baztertu gabe, bertan jasotzen diren datuak laga ahal izango dira, Administrazio publikoaren esparruan, ordenamendu juridikoak euren gain utzitako eginkizunak betetzeko, betiere eskumen berdin-berdinak edota gai berberen gaineko eskumenak gauzatzeko.

2.– Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko eta beste Administrazio Publikoetako organoei eta estatistika-zerbitzuei laga ahal izango zaizkie, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean eta Estatistikako Funtzio Publikoaren maiatzaren 9ko 12/1989 Legean xedatutakoarekin bat.

3.– Halaber, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 artikuluari jarraituz, Arartekoari, Fiskaltzari, epaileei edo auzitegiei, edota Kontu Auzitegiari laga ahal izango zaizkie izaera pertsonaleko datuak, esleitutako eginkizunak gauza ditzaten.

3. artikulua.– Segurtasun- eta kudeaketa-neurriak.

Fitxategi bakoitzaren ardura duten organoek beharrezko neurriak hartuko dituzte, fitxategiak sortu diren helbururako erabiltzen direla bermatzeko, izaera pertsonaleko datuen segurtasuna zaintzeko, eta datuak aldatzea, galtzea edo baimenik gabe tratatzea edo eskuratzea eragozteko, bai eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzen duten arauetan aintzat harturiko bermeak, betebeharrak eta eskubideak gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak ere.

4. artikulua.– Datuak tratatzeko zerbitzuak ematea.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren nahiz Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren mende izaera pertsonaleko datuen tratamenduan zerbitzuak ematen dituztenek betebeharra dute datu horiek tratatzeko ardura duen pertsonak emandako jarraibideak betetzeko, esleitu zaizkien funtzioak betetzean, eta betebeharrak hori horretarako egindako kontratuan jaso beharko da; eta ezin izango dituzte datu horiek beste helburu baterako erabili, ez eta haien berri eman beste pertsona batzuei ere, ezta kontserbatzeko ere, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 12. artikuluan xedatutakoa betez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean jartzearekin batera, indargabetuta geratzen da Enplegu eta Gizarte Gaie-tako sailburuaren 2011ko azaroaren 30eko Agindua, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakunde Autonomoaren izaera pertsona-leko datuen fitxategiak arautzen dituenak, bai eta arau honetan xedatutakoaren aurka egiten duen maila bereko edo beheragoko beste edozein xedapen ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari igorriko dio Agindu honen kopia bat, bertan jasotako fitxategiak inskriba, alda edo ezaba ditzan, kasu bakoitzean dagokiona, horretarako ezarritako prozeduraren bidez.

Osalan Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen kasuan, erakunde horren Zuzendaritzak izango du fitxategi horien berri emateko ardura.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abenduaren 2a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
ANGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.

I. ERANSKINA

SORTUTAKO FITXATEGIAK

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza

1. Bitartekarien Erregistroa

a) Fitxategiaren izena

Bitartekarien Erregistroa

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak

Familia-bitartekaritzako zerbitzuetan eta programa publikoetan esku hartzen duten profesionalen erregistroa, inskripzioa eta egiaztatzea.

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharrak

Familia-bitartekaritzako prozesuetan esku hartzen duten eta Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legeko 9. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten profesional guztiak.

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura

- Datuen jatorria: interesduna bera edo haren legezko ordezkaria.
- Biltzeko prozedura: galdetegiak eta inprimakiak

e) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, telefono-zenbakia, helbidea (postala, elektronikoa)
- Ikasketei eta lanbideari dagozkien datuak: prestakuntza, tituluak, elkargo edo elkarte profesionaletako kidetza, lan-esperientzia

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Interes legitimoa egiaztatzen duten pertsonen

h) Fitxategiaren ardura duen organoa

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

- j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Erdiko maila

2. Transexualen dokumentazio administratiboaren fitxategia

- a) Fitxategiaren izena

Transexualen dokumentazio administratiboaren fitxategia

- b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak

Kudeatzea Transexualak genero identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 7. artikuluko administrazio-agirien eskaerak.

- c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra

Pertsona transexualak

- d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura

- Datuen jatorria: interesduna bera edo haren legezko ordezkaria.
- Biltzeko prozedura: galdetegiak eta inprimakiak

- e) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA/IFZ, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, faxa.
- Pertsonaren ezaugarriei buruzko datuak: jaioteguna eta jaioterria, adina, sexua, nazionalitatea.
- Bereziki babesturiko beste datu batzuk: osasuna

- f) Tratamendu-sistema.

Papera

- g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Ez dago lagapenik

h) Fitxategiaren ardura duen organoa

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Maila altua

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza

3. Gizarte Zerbitzuen Erregistroa

a) Fitxategiaren izena

Gizarte Zerbitzuen Erregistroa

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak

Gizarte Zerbitzuen erregistroa, inskripzioa, egiaztatzea, egokitzapena eta antolaketa, eta dauden baliabideei buruzko ezagutza eguneratua.

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barnekoak diren edo ez diren erakunde publikoak eta pribatuak, eta haien mendeko zerbitzu eta zentro guztiak.

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura

- Datuen jatorria: interesduna bera edo haren legezko ordezkaria.
- Biltzeko prozedura: galdetegiak eta inprimakiak
- Euskarria: papera eta euskarri automatizatua

e) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, sozietate-izena, NANA/IFZ, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, faxa

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

- g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Interes legitimoa egiaztatzen duten pertsonen

- h) Fitxategiaren ardura duten administrazioetako organoak.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza

- i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.
Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

- j) Segurtasun-neurriak, oinarritzko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Oinarritzko maila

4. Genero-indarkeriaren biktimen arreta

- a) Fitxategiaren izena

Genero-indarkeriaren biktimen arreta

- b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak

Genero-indarkeriaren biktimak diren pertsonen arreta integrala ematea, Sailak eskaintzen dizkien prestazioen, zerbitzuen eta baliabideen bidez, bai eta eskura ditzaketen beste baliabide batzuetara bideratuz ere.

- c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra

Genero-indarkeriaren biktimak

- d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura

- Datuen jatorria: interesduna bera edo haren legezko ordezkaria; administrazio publikoak
- Biltzeko prozedura: adierazpenak eta inprimakiak
- Euskarria: papera eta euskarri automatizatua

- e) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA/IFZ, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, faxa.
- Pertsonaren ezaugarriei buruzko datuak: egoera zibila, familiaren datuak, jaioteguna eta jaioterria, adina, sexua, nazionalitatea
- Ikasketei eta lanbideari dagozkien datuak: prestakuntza, tituluak.
- Inguruabar sozialei buruzko datuak: bizitokia, etxebizitza
- Enpleguari buruzko datuak: Lanpostuak
- Ekonomia- eta finantza-datuak: kredituak, maileguak, abalak. Diru-sarrerak, errentak.
- Arau-hauste administratiboak: arau-hauste administratiboak, zigor-arloko arau-hausteak.
- Bereziki babesturiko beste datu batzuk: osasuna

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Nazioaren eremuan

h) Fitxategiaren ardura duten administrazioetako organoak.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.
Donostia 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

j) Segurtasun-neurriak, oinarrizko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Maila altua

5. Telefono bidezko 24 orduko arreta

a) Fitxategiaren izena

Telefono bidezko 24 orduko arreta

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak

Telefono bidezko 24 orduko arreta-zerbitzua, genero-indarkeriaren biktimetzat.

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra

Genero-indarkeriaren biktimak

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura

Datuak biltzeko bestelako prozedurak

e) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, beste identifikazio-datu batzuk.
- Bereziki babesturiko beste datu batzuk: osasuna

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Ez dago

h) Fitxategiaren ardura duten administrazioetako organoak.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.
Donostia 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

j) Segurtasun-neurriak, oinarrizko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Maila altua

Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza

6. Fitxategia: Fidantzen kudeaketa

a) Fitxategiaren izena.

Fidantzen kudeaketa

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskal Autonomia Erkidegoan formalizatutako errentamenduen fidantzen gordailutzea kudeatzea

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra.

Errentariak eta jabeak

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura.

- Datuen jatorria: interesduna bera edo haren legezko ordezkaria.
- Biltzeko prozedura: galdetegiak/elkarrizketak; inprimakiak/kupoiak

e) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: NANA, izen-abizenak, helbide postala eta elektronikoa, telefono-zenbakia, sinadura
- Pertsonaren ezaugarriei buruzko datuak; ekonomia- eta finantza-datuak; transakzioei buruzko datuak.

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak.

Banku-erakundeei, erlazio juridikoaren garapenaren esparruan

h) Fitxategiaren ardura duten administrazioetako organoak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

j) Segurtasun-neurriak, oinarrizko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Oinarrizko maila

7. Bitartekaritza, merkatu libreko etxebizitzaren alokairuan

a) Fitxategiaren izena.

Bitartekaritza, merkatu libreko etxebizitzaren alokairuan

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Merkatu libreko etxebizitzaren alokairu-programan bitartekaritza egiteko homologatutako agente laguntzaileen erregistroa kudeatzea, bai eta programa horretan parte hartzen duten etxebizitza-jabeen datuak ere

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra.

- Higiezin Jabetzako Agente homologatuak.
- Higiezin bitartekaritza-jarduerak gauzatzeko, higiezin eta garraioaren sektorea liberalizatzeko premia neurrien gaineko maiatzaren 20ko 10/2003 Legearen 3.b) artikuluko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak, eta homologatuak.
- Merkatu libreko etxebizitzaren alokairu-programan parte hartzen duten etxebizitzajabeak.

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura.

- Datuen jatorria: interesduna bera edo haren legezko ordezkaria.
- Biltzeko prozedura: galdetegiak/elkarrizketak; inprimakiak/kupoiak

e) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: NANA, izen-abizenak, helbide postala eta elektronikoa, sinadura
- Inguruabar sozialei buruzko datuak; ikasketei eta lanbideari buruzko datuak; enpleguari buruzko datuak; informazio komertziala; ekonomia- eta finantza-datuak; transakzioei buruzko datuak.

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

- Fitxategia kontsultatzen duen eta interes legitimoa duen edonor
- Foru-ogasunak
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra

h) Fitxategiaren ardura duten administrazioetako organoak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

j) Segurtasun-neurriak, oinarritzko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Erdiko maila

8. Aurrez ordua eskatzea - Bizilagun

a) Fitxategiaren izena.

Aurrez ordua eskatzea, Bizilagun zerbitzuan

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Bizilagun zerbitzuan kontsultak egiteko orduak kudeatzea.

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra.

Konsultak egiteko aurrez ordua eskatzen duten herritarrak.

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura.

- Telefonoz eta bertaratuta

e) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: NANA, izen-abizenak, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa.

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Ez dago

h) Fitxategien ardura duten administrazioetako organoak

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

Donostia 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

j) Segurtasun-neurriak, oinarritzko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Oinarritzko maila

9. Babes publikoko etxebizitzak, antzekoak eta zuzkidura-bizitokiak

a) Fitxategiaren izena.

Babes publikoko etxebizitzak, antzekoak eta zuzkidura-bizitokiak.

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak.

- Babes Publikoko Etxebizitza guztien, antzekoen eta zuzkidura-bizitokiaren datuen bilketa sistematikoa
- Etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak eta horien jabeak, errentariak eta erabiltzaileak kontrolatzea eta ikuskatzea.
- Gehieneko prezioak eta errentak kalkulatzeko
- Bigarren eskualdaketak eta hurrengoak kontrolatzea
- Datuak ustiatzea, etxebizitzaren arloko erkidegoko politikak hobeto zehaztu ahal izateko.

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharrak.

Babes publikoko etxebizitzaren eta antzekoen garai bateko edo egungo jabeak eta errentariak eta zuzkidura-bizitokiaren erabiltzaileak.

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura.

- Interesdunek beraiek, interesdunak ez diren pertsona fisikoek edo juridikoek, herri-administrazioek, notarioek, jabetzaren erregistroek eta auzitegiek bilduko dituzte datuak.
- Biltzeko prozedura: Alokairu- eta/edo salerosketa-kontratuak, inprimakiak, administrazio-espeditenteak eta transmisio elektronikoa.

e) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: Etxebizitzaren jabeen eta errentarien NANa, izen-abizenak, telefono-zenbakia, helbidea (postala eta elektronikoa), pertsona fisikoaren kasuan, eta erabiltzaileena, zuzkidura-bizitokiaren erabiltzailearen kasuan.
- Errentariaren eta zuzkidura-bizitokiaren erabiltzailearen errenta-maila.

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Herri-administrazioak, zuzenbide publikoko erakundeak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak, guztiak ere etxebizitzaren arloan eskumena dutenak, horien beharra dagoenean kudeaketa-manuak betetzeko, helburu estatistikoetarako edota eskaria ikertzeko, hala nola legeak babestutako interes legitimoa duten pertsonak.

h) Fitxategiaren ardura duten administrazioetako organoak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza

- i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritza.

Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

- j) Segurtasun-neurriak, oinarrizko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Erdiko maila

Etxebizitza Zuzendaritza

10. Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Erregistroa

- a) Fitxategiaren izena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren Erregistroa

- b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Eraikinen Ikuskapen Teknikoaren (EIT) Erregistroa, azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuaren bidez sortua, kudeatzea.

- c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra.

- Eraikinen jabeak
- Etxebizitzen ikuskapena egingo duten erakundeetako profesionalak edo ordezkariak
- EITren datuak eskuratzeko interesa duten pertsonak.

- d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura.

- Eraikinen jabeenak eta profesionalenak: Udalen bidez, aurrez interesdunek datuak emanda.
- EITren datuak eskuratzeko interesa duten pertsonenak: horretarako Interneten sortutako plataforman inskripzioa eginda.
- Biltzeko prozedura: paperezko inprimakien bidez, eta CD euskarrian, bidalketa telematikorako.

- e) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Jabetzaren identifikazio-datuak: jabearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren izen-abizenak eta NANA, eta helbidea, herria eta telefono-zenbakia.

- Ikuskatzailearen identifikazio-datuak eta enpleguari buruzko datuak: izena, lanbidea, lanbide-sozietatea, lanbide-elkargoa, elkargokide-zenbakia, helbidea, telefono-zenbakia, helbide elektronikoa
- EITren datuak eskuratzeko interesa duen herritarraren identifikazio-datuak: izen abizenak, NANA, helbide elektronikoa, informazioa lortzeko interesaren justifikazioa.

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Fitxategia kontsultatzen duen eta interes legitimoa duen edonor

h) Fitxategiaren ardura duten administrazioetako organoak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Zuzendaritza.

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Etxebizitza Zuzendaritza.
Donostia 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

j) Segurtasun-neurriak, oinarrizko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Oinarrizko maila

Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza

11. Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatutako programak

a) Fitxategiaren izena

Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatutako programak

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak

Europako Gizarte Funtsaren (EGF) kofinantzazioarekin egindako jardueren onuradunen mikrodatuak biltegitratzea, jarraipen- eta ebaluazio-ondorioetarako.

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharrak

EGFen euskal autonomia-erkidegoko programa eragilearen bitartez irabazi asmorik gabeko erakunde publiko zein pribatuek arreta emandako pertsonak, gazteen enplegurako programa eragilearen euskal erkidegoko bitartean daudenak, eta konfinantzatutako ekintzetan parte hartzen duten Lanbide euskal enplegu zerbitzuaren erabiltzaileak.

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura

- Datuen jatorria: interesduna bera edo haren legezko ordezkaria.
- Biltzeko prozedura: galdetegiak eta inprimakiak
- Euskarria: papera eta euskarri automatizatua

e) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, sozietate-izena, NANA/IFZ, helbidea (postala, elektronikoa), telefono-zenbakia, faxa
- Datu akademiko eta profesionalak: ikaskuntza-maila
- Enplegu-datuak: lan-egoera
- Izaera pertsonaleko datuak: bere ardurapeko seme-alabekin etxebizitza partekatzea
- Babes bereziko bestelako datuak: etorkin izatea, desgaitasunen bat izatea edo gizarte-egoera ahuleko kolektiboetako kide izatea

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Interes legitimoa egiaztatzen duten pertsonen

h) Fitxategiaren ardura duten administrazioetako organoak.

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Enplegu eta Laneko Sailburuordetzaren Enpleguko Plangintza eta Berrikuntzarako Zuzendaritza

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duten zerbitzuak edo unitateak.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Plangintzako eta Enplegu Berrikuntzako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz.

j) Segurtasun-neurriak, oinarritzko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta.

Maila altua

OSALAN

12. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak

a) Fitxategiaren izena

Laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuetarako diru-laguntzak

b) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak

Arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-proiektuak egiteko aurreikutzako diru-laguntza eskabideak eta Osalanek onartutakoak kudeatzea.

c) Zer pertsona edo talderengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak, edota nork duten datu horiek emateko betebeharra

Diru-laguntzaren eskaera egin duten pertsona fisikoak edo juridikoak, deialdiko oinarrietan ezarritakoaren arabera. Ikerketa-proiektuetan parte hartzen duten ikerlariak, curriculumak atxikita

d) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura

- Datuen jatorria: interesduna bera edo haren legezko ordezkaria eta bestelako herri-administrazioak.
- Biltzeko prozedura: Datuen transmisioaren, elkarreragingarritasunaren eta inprimakien bidezko eskaera.

e) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta hartan jasotako izaera pertsonaleko datu moten deskribapena.

- Identifikazio-datuak: izen-abizenak, NANA, telefono-zenbakia, helbidea (postala, elektronikoa)
- Ikasketei eta lanbideari dagozkien datuak: prestakuntza, tituluak, laneko esperientzia eta parte hartu duen argitalpenak eta ikerketa-proiektuak.
- Enpleguaren xehetasun-datuak: Lanpostua, lanbide-kategoria, laneratze-data eta lanaldia.

f) Tratamendu-sistema.

Mistoa

g) Izaera pertsonaleko datuen lagapenak eta, hala badagokio, aurreikusi diren beste herrialde batzuetara egiteko datuen transferentziak

Ez da aurreikusi

h) Fitxategiaren ardura duen organoa

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Plangintza Zuzendariordeak.

i) Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Plangintza
Zuzendariordetza.
Dinamita bidea z.g.
48903 Barakaldo (Bizkaia)

j) Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Erdiko maila

II. ERANSKINA

FITXATEGIAK ALDATZEA

Fitxategi hauen aldaketa egin da, zehaztutako ataletan:

Zerbitzu Zuzendaritza

1. Etxebizitza Sozialen Kobrantsen Kudeaketa

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Zerbitzu Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Zerbitzu Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

2. Etxebizitzari buruzko eragiketa estatistikoak

- Fitxategiaren oinarritzko egitura:

Aurrez adierazitako datu motez gain, beste datu hauek jaso dira:

- Babes berezia duten datuak: osasuna.

- Segurtasun-neurriak, oinarritzko, erdiko eta goiko maila galdagarriak zehaztuta:

Maila altua

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Zerbitzu Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Zerbitzu Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza

3. Familia-bitartekaritza

- Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Bizikidetzeta-egoerei buruzko komunikazioan bitartekaritza-zerbitzua ematea, eta emandako bitartekaritza-zerbitzuari buruzko kexak eta erreklamazioak jasotzea.

- Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

interesduna bera edo haren legezko ordezkaria.

- Fitxategiaren oinarritzko egitura:

- Identifikazio-datuak: NANA/IFZa, helbidea, izen-abizenak, telefono-zenbakia, nazionalitatea.
- Pertsonaren ezaugarriei buruzko datuak: egoera zibilari buruzko datuak; familiari buruzko datuak; adina, jaioteguna eta jaioterria; bizikideak; bizikidetzaren etetea; zaintza-mota, sinatua.
- Pertsonaren ezaugarriei buruzko beste datu batzuk: gatazkaren arrazoia, banantzearen arrazoia
- Ikasketei eta lanbideari buruzko datuak: prestakuntza, tituluak.
- Inguruabar sozialei buruzko datuak: zaletasunak, bizi-estiloa, etxebizitza-mota, jokabide oldarkorra/indarkeriazkoa.
- Enpleguari eta ibilbide administratiboari buruzko datuak: landuna, langabea, pentsioduna.
- Transakzioei buruzko datuak: eraginpekoak jasotako ondasunak eta zerbitzuak (esku-hartzearen arloak).
- Transakzioei buruzko beste datu batzuk: esku-hartzaren emaitzak, jarraipenari buruzko datuak.
- Ekonomia- eta finantza-datuak: Nomina, PFEZ, zorrak.
- Arau-hausteei buruzko datuak: zigor-arloko arau-haustekak.
- Bereziki babestutako beste datu batzuk: osasunari buruzko datuak (nahasmendu psikologikoak, alkoholismoa/toxikomaniak, beste adikzio batzuk).

- Datuen lagapenak:

Oinarritzko gizarte zerbitzuei, epaitegiei eta auzitegiei

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

- Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Maila altua

4. Nazioarteko adopzioa

- Helburua eta aurreikusitako erabilerak:

Akreditatutako NAELen erregistroa kudeatzea, eta egindako adopzio-prozesuak bideratu dituen bitartekaritza-zerbitzuari buruzko kexak eta erreklamazioak jasotzen bitartekaritza egitea.

- Datuen jatorria eta haiek biltzeko prozedura:

Jatorria:

- Erakunde pribatua
- Interesduna bera edo haren legezko ordezkaria
- Sailaren Elkarteen eta Fundazioen Erregistroa

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

5. Familia ugariak

- Datuen lagapenak:

Estatuari eta foru-administrazioei

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

- Segurtasun-neurrietan eskatzen den maila:

Oinarrizko maila

6. Seme-alabengatiko laguntzak familientzat

- Fitxategiaren izena:

Seme-alabengatiko laguntzak familientzat

- Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Bereziki babesturiko beste datu batzuk: Tratu txarren biktima izatea

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

7. Lana eta familia-bizitza bateratzea

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

8. Immigrazioari buruzko txostenen fitxategia

- Datuen lagapenak:

Udalei

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

9. Immigranteentzako aholkularitza juridikoa

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz.

10. Biltzen

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

11. Izatezko Bikoteen Erregistroa

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

12. Boluntariotza indartzeko laguntzak

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

13. Boluntariotza-erakundeen errolda

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Familia Politikarako eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza

14. Istripuei buruzko txostenen kudeaketa

- Fitxategiaren oinarrizko egitura:

Identifikazio-datuak: izen-abizenak
Enpleguari eta ibilbide administratiboari buruzko datuak: lanpostuak

- Fitxategiaren ardura duen organoa:

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Enplegu eta Laneko Sailburuordetzaren Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza.

- Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzua:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritza
Donostia kalea 1,
01010 Vitoria-Gasteiz

